

ERABAKIA, 2019ko ABENDUAREN 30ekoa, AKATSAK ZUZENTZEKO UPV/EHUko ERREKTOREAREN 2019ko ABENDUAREN 20ko ERABAKIAN, UNIBERTSITATEKO IRAKASLE AGREGATUEN ETA OSOEN PLAZAK BETETZEKO LEHIAKETAN (2019ko URRIAREN 28ko ERABAKIAREN BIDEZ DEITUTAKOAN) ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEKOAN

Gertakari hauek egiaztatu dira:

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen 2019ko urriaren 28ko Erabakiaren bidez, irakasle agregatuen eta osoen plazak betetzeko lehiaketarako deialdia egin zen eta 2019ko azaroaren 11tik 29ra arteko epea zabaldu zen eskaerak aurkezteko. Deitutako plazetako bat AGC8L1-D00103-26 barne kodea daukana izan zen, Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazioa Sailekoa.

Bigarrena.- UPV/EHUko errektorearen 2019ko abenduaren 4ko Erabakiaren bidez, lehiaketan onartutako eta kanporatutako lehiakideen behin-behineko zerrenda argitaratu zen unibertsitateko webgunean. Goian adierazitako plazarako (AGC8L1-D00103-16), Raúl Montero Gilete jauna onartutakotzat jo zen eta Olga Fernández Vicente andrea, aldiz, kanporatuta geratu zen deialdian ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

Hirugarrena.- 2019ko abenduaren 20an lehiaketan onartutako eta kanporatutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen unibertsitateko webgunean. Zerrenda horretan, Raúl Montero Gilete jauna bakarrik onartu zen goian adierazitako plazarako (AGC8L1-D00103-16), eta ez zen inor kanporatutakotzat jo. Hala ere, akatsak zuzentzeko epearen barruan, Olga Fernández Vicente andreak ez zuen bera kanporatzea eragin zuen akatsa zuzendu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Kasu honetan honako hauek aplikatu behar dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); 40/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, UPV/EHUko irakasleen eta ikertzaileen araubideari buruzkoa; Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko



errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko; eta eskumenak eskuordetzekoa (2017ko otsailaren 3ko EHAA); 2008ko ekainaren 23ko Erabakia; irakasle kontratatu iraunkorrak hautatu eta kontratatzeko prozedurari buruzko arautegia argitaratzeko dena (2008ko uztailaren 15eko EHAA); 2019ko urriaren 28ko Erabakia; irakasle agregatuen eta osoen plazak betetzeko lehiaketarako deialdia egiteko dena, eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

Bigarrena.- Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eskumenak eskuordetuta, erabaki hau emateko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakiarekin bat (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia; otsailaren 3ko EHAA).

Hirugarrena.- 39/2015 Legearen 109.2 artikulua ezarritakoaren arabera, «Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak». Gertakarien hirugarren atalean adierazi den moduan, akats bat egon da AGC8L1-D00103-16 plazarako onartutako eta kanporatutako lehiakideen behin betiko zerrendan, errektorearen 2019ko abenduaren 20ko Erabakiaren bidez onartutakoan, hain zuzen ere, zerrenda horretan ez delako kanporatuen artean agertzen Olga Fernández Vicente andrea, eta akatsa zuzendu egin behar da.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Zuzentzea onartutako eta kanporatutako lehiakideen behin betiko zerrenda, errektorearen 2019ko abenduaren 20ko Erabakiaren bidez argitaratutakoa, eta zuzenketaren ondorioz Olga Fernández Vicente andrea AGC8L1-D00103-26 plazarako kanporatutako lehiakideen behin betiko zerrendan sartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau unibertsitateko webgunean argitaratzea (IRIen deialdiak).

ERREKURTSOAK

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilbon, dagokion




administrazioarekiko auzien epaitegian, edo demandatzaileari bere egoitzaren arabera dagokion epaitegian; demandatzailearen beraren aukeran. Horretarako, bi hilabeteko epea dago erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 8.2.a, 10.1.j eta 14.1 Bigarrena artikulua).


Leioa, 2019ko abenduaren.30a

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta, UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea



Stua.: Inmaculada Guericogoitia Marina



Nik, Pedro María Iriordo Bengoajauak, UPV/EHUko idazkari nagusiak, ziurtatzen dut dokumentu hau hitzez hitz datorrela bat jatorrizkoarekin. Idazkaritza Nagusiko bulegoko buruak (2.zuzk) Izenpetua, 2017ko irailaren 12ko erabakiaren bidez izenpea eskuordetuta Leioa, 2020(e)ko ... abendu(a)ren ... 3 ... a

Pedro María Iriordo Bengoa, Secretario General de la UPV/EHU, certifica que el presente documento concuerda literalmente con el original. Por delegación de firma, en virtud de la Resolución de ... de 2017, la jefe de negociado de ... (del 2). Leioa, 30 de mayo de 2020



